**ERREPORTAJEA** ERREKADISTEN LANBIDEA · **GEHIGARRIA** KILIBARREN
**KIROLA** YOLANDA MATEOS FUTBOLARIARI ELKARRIZKETA

# BaRRen
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko martxoaren 28a/XI. urtea/440. zkia




## Errekadistak, galtzear dagoen ofizioa?



# ELGOI BARREN

e\41)totit

**ELGOI BARKO EZKERTZALE ETA ABERTZALEEN P LATAFO RMAK**

# 500

*(f/fradtij'a*

behar ditu maiatzeko

**UDAL HAUTESKUNDEETAN**

ronrte hortu ahal izateko

# 40 URTE 40 ISTORIO

p,

ELGOIBA7,K0 IZARRA
KULTUR ELK ARTEA



12

## 400 gaztetxo daritzani!

Aurreko astean esan genizuen moduan, 1964an sortu zen Elgoibarko Izarraren estreinako dantza taldea. Umeen taldea izan zen, 7-8 urteko gaztetxoek osatutakoa. Lehen dantza taldean neskak mutilak baino gehiago ziren eta 14 urte inguru bete arte egoten ziren dantza taldean.

Elkarteko estreinako dantza taldea 12-14 mutilekin hasi zen, baina berehala hurreratu zitzaizkien 20 neska. Gerora, taldea handitzen joan zen poliki-poliki. Gero eta irakasle gehiago zeuden eta, Sebas Larrailagak esan digunez, "400 ikasle izatera ere iritsi ginela uste dot".

Hasieran Ongarri dantza taldekoak ibili ziren umeei dantzak irakasten; gero, Elorrakoak eta, azken urteetan, Haritz dantzari taldekoak (hauetako asko ikasle moduan hasitakoak). Haritz Dantzari Taldea 1974an sortu zen eta umeei dantzak irakastea zen taldearen helbururik garrantzitsuena. Halere, Haritzek bazituen beste bi helburu: bat, Elgoibarko tradizioak mimoz gordetzea, eta bi, dantza munduan arrasto berriak zabaltzea.

Entsaioei dagokienez, hasieran Loritoko lokaletan egiten zituzten. Gero, Plaza Txikiaren ondoan zegoen tailer zahar batera pasa ziren, eta, azkenik, Azoka Plazako terrazan egiten zituzten dantza entsaioak.

Dantzarako sasoia, batez ere, uda izaten zen. Udan ia domekero joaten ziren inguruetako herrietako euskal jaietara.

Eta 25 urte inguru Elgoibarko Izarrak bere dantza taldea izan eta gero, 1990-91 ikasturtean Inazio Bereziartua Musika Eskolak hartu zuen Elgoibarren euskal dantzak irakasteko ardura. Une honetan etengo da Elgoibarko Izarra eta euskal dantza lotzen zituen soka.

*Sebas Larraftaga eta lmanol Larrañaga*
Iturria: *elgoibar DANTZAN liburua*

# iritzia



## tgin irratia, tgin egunkaria, Ardi Beltza hilebetekaria, Euskaldunon Egunkaria,...

•

11
b katast/: 1%

u 5

f ush> #) ‹<"' t

uriA G14-414131 Lsia« E

1.03011'ent

P.D.: herria altxatzen ez bada, nork desarmatuko ditu bush eta beraien txakur inperialistak?

Nestor Fuente


Kexak ............. .................................5

motz MotZ .................................8

gehigarria ...........................

kiRolAk ............................

aGenda 4

2003-111-28

## GOGOETAK

Euskaldunon Egunkariaren aurkako erasoaren berri izan nuenean, Soto del Real kartzelan gatibu dagoen nire adiskide bati, abenduan gutun bidez igorri nizkion gogoetak etorri zitzaizkidan burura:

Euskal Herrian gatazka bat badago eta gatazka horri irtenbidea aurkitu nahian edo, alderdi politiko batzuek eginiko proposamen ezberdinak ditugu mahai gainean: subiranotasun konpartitua, estatu federal edo konfederala eta hasieratik mahai gainean dugun proposamen independentista, besteak beste. Guztiak ere, herri bezala dagokigun autodeterminazio eskubidean oinarritzen dira. Eskubide honen onarpena, dudarik gabe aurrerapausu handia litzateke Euskal Herriarentzat, eta baita demokraziarentzat ere. Dena dela, inork ez dezala pentsatu autodeterminazio eskubidea nahikoa denik gure herrian bakea lortzeko, izan ere, Andoni Egaña bertsolariak erran bezala, "bakea ez da gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik". Gure herriak gehiegi sufritu du azken hamarkadotan. Gorrotoa oso sustraiturik dago, gehiegitxo, pairatutako sufrimendu guztia egun batetik bestera ahanzteko.

Momentu batez egin dezagun amets. Pentsatu dezagun erreferendum bidez, Euskal Herriak bihar bertan independentzia lortzen duela. Gaur egun dugun hizkuntza maparekin, imajinatzen duzue zer nolako Euskal Herria litzatekeen? Hazparneko edo Mauleko biztanle bat eta Tuterako edo Elgoibarko beste biztanle bat, adibidez, nazio berekoak izanik, ez litzateke harritzekoa izango elkarrekin hitz bidez komunikatzeko gai ez izatea. Triste benetan. Ni pertsonalki bat nator Ramon Saizarbitoriarekin, esaten duenean nahiago duela enbaxadarik gabeko Euskal Herri euskaldun bat, Euskal Herri aske eta erdaldun bat baino. Askotan gehiegi hitz egiten dugu aita lurraz, ama suari, herri honen benetako odolari, euskarari jaramon handiegirik egin gabe,

Hasieran erran bezala, gogoeta hauek abenduan igorri nizkion Soto del Real-ko kartzelan preso dagoen nire adiskideari. Orain, hiru hilabete geroago, beraien bizia euskararen alde eman duten horiek daude kartzela berean gatibu. Bizitzak hamaika buelta ematen ditu...

Hitzetik ekintzetara pasatu beharrean gaude. Bost futbol zelai euskaltzalez betetzea ez da nahikoa; haratago joan beharra dago. Ildo horretan jende askotxo ari da lanean eta guztiei eman nahi nizkieke eskerrak, baina bereziki, egunero, astero edo-eta hilero euskaraz kaleratzen diren horiei. Eskerrik asko Barren, eskerrik asko Argia, eskerrik asko Euskaldunon Egunkaria eta Egunero. Aurrera Egunkaria! Bai Euskarari!

A.A.A
72575981-X

# Urruzunoren begi ezkutua

## Non saltzen dira buruak?

Non saltzen dira buruak? Norbaitek baldin badaki dei nazala, mesedez. Buru baten beharra daukat. Badaki zue bakarrarekin jaiotzen garela eta, urteak pasa ahala, erabileraren ondorioz edo, herdoiltzen joaten dela. Egia esan, pentsatzen jarrita, batzuei batere erabili gabeko buru hutsak luze irauten die eta, noski, horien neurrira egindako mundua sufritzea egokitu zaigu besteoi. Lixto usteko asko luzitzen da burua tente-tente, aldamenean duena zapalduz. Boterea munstro burugogorra da. Beste asko, berriz, burumakur bizi dira, zapalduak. Ahulari buruz behera ibiltzeko agindu diote. Baina hori beste kontu bat da.

Nik buru bat behar dut edo, gutxienez, memoria handitzea. Ordenadoreekin egiten den bezala, ezin al ditut mega gehiago sartu nire burmuinean? Aspaldian gauzak ahaztu egiten zaizkit eta hori arriskutsua da. Nire ingurukoek diotenez mila saltsatan sartzen naizelako gertatzen zait hori. Arrazoi izango dute seguruenik. Gauza askotara iritsi nahi duenak azkenean bakarra ere ez du behar bezala egiten. Baina holakoxea naiz ni. Kosta egiten zait ezetz esatea eta, noski, horrek arazoak ekartzen ditu. Buru bat behar dut. Ez, bi buru. Bata memoria gehiago izateko. Bestea ezetz esaten jakiteko. Norbaitek non saltzen diren baldin badaki, dei nazala.

Jasone Osoro

ASTE KARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
*n• 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faza: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comtbarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTIAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATLAILEA Ainhoa Andonegli ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA UX119 Alberdi PueuzimeA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTztA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARK0 IZARRA
ELIA1111.1

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

41¹ kutxa
eskor

DANOBAT
.1111,15 NEPRAMEN,
,k GO nr
GRUPO DANOLIAT
111,Airrik

## KEXAK



♦ Begira zer ikusi genuen joan zen egunean Barren parean dagoen zabor kontenedorearen inguruan. **Lotsagarria da zabor arrastoak lurrean botata utzi eta ez jasotzea.** Zikinkeria hau guztia bidean utzi zuen herritarrari, hurrengoan kontu gehiago izan dezala eskatu nahi diogu.

Leku Ederreko bizilagun batek, ondorengo kexa azaldu digu: **"Lehenengo solairuan bizi naiz, eta Leku Ederreko parkean jolasean ibiltzen den ume koadrila batek, harriak botatzen dizkit leihora.** Askotan leihoa zabalik egoten da, eta sukalde guztia harriz beteta uzten didate. Umeen gurasoak bertan izaten dira askotan, eta haurrak hobeto zaintzeko eskatuko nieke".



## V11\10111

Emakume batek **Mankomunitateko langileak txalotu nahi ditu, Leku Ederreko lorategia oso dotore jarri dutelako: "Lan** txukuna egin dute, eta loratagia oso dotore jarri dute".

Emakume elbarritu batek, **Udala txalotu nahi du Santa Klara auzoan eta San Bartolome elizan, gurpildun aulkiak pasatzeko aldapa jartzeagatik: "Lehen** ezin izaten nuen mezetara joan, eta bazen garaia elbarrituak kontuan hartzeko".

Barrak, Birrak eta Barreak



# ERREKADISTAK

## DESAGERTZEA

Gaur egun mensajero eta transportistek egiten duten lana, garai batean errekadistek egiten zuten. Urteak aurrera joan ahala, errekadisten lana gutxituz joan da. Gutxi dira egunotan autorik ez daukatenak, eta errekaduak egiteko, inor gutxik dauka errekadisten beharra. Hala ere, aspaldi batean asko preziatzen zen lan hau. Apur bat errekadisten lana gertutik ezagutzeko, Gloria Aranguren eta Elena Garate ekarri ditugu gure artera.



Ilendaroko faietan ateratako erretratua da goikoa, eta argazkiaren ezkerreko aldean ageri dena da "Animarte" errekadista. Bere karroa jaietako prozesioan erabiltzen zen, eta zaldia Elgoibarko Erregeen Kabalgatarako. Elgoibar eta Mendaroko unze guztiak ibiltzen ziren "Animarteren" kanwan.

## ELENA GARATE

### "ANIMARTE" ERREKADISTAREN ALABA

## "Karrua eta zaldixakin eitxen zitun gure aitxak errekaduak"

Elena Garate, Juan Garate errekadista izandakoaren alaba da. Juan Garate esanda, askok ez dute agian gizon hau ezagutuko; "Animarte" errekadista esanda, ordea, seguru denek ezagutzen dutela. 1944. urtean hasi zen "Animarte" errekadista lanetan. "Animartek" forjan egiten zuen lan, eta gero estazioko maletero lanetan hasi zen, hau da, trenez iristen ziren paketeak banatzen zituen. Altzolabe zen orduan Elgoibar eta Mendaro arteko errekadista, eta honek laga zuenean hasi zen "Animarte". Elenak esan digunez, "zaldixa eta karrua hartuta, Elgoibar eta Mendaro arteko errekaduak eitxen zitxun". Mota guztietako errekaduak egiten zituen, baina bazeuzkan bezero finko batzuk: "Mataderixan ganadua hiltzen zutenian berak eitxen zaban karnizerixetara repartua, eta ardotegitik tabernetara ardo botilak eruaten zitxun".

Garai hartan lantegi asko ez zegoen arren, beti zegoen errekaduren bat egiteko, eta "Animartek" egiten zituen Mendaro eta Elgoibarko lantegien arteko elkartrukeak. Honetaz aparte, Altzolako hotel eta bainuetxerako ere, lan asko egiten zuen: "Altzolako bainuetxeko ura hartu eta trenera eruaten zaban kanpora bialtzeko". Denetarik egiten zuela kontatu

# DAGOEN OFIZIOA?



digu Elenak: "Butanoa ere orduantxe azaldu zan, eta gure aitxak butano urdin txiki horrek bete eta banatu eitxen zitxun".

Milaka abentura bizi izango zituen "Animartek" bere karro eta zaldiarekin. Elenak kontatu digu horietako bat: "Behin karrua gehixegi bete zaban, eta Melitongo aldapia igo ezinda geratu zan. Guardia Zibilak azaldu zian, eta eurak lagundu zioten karruari bultza eitxen. Ordainetan haragi piskat eman bihar izan zien".

**"Mota guztietako errekaduak eitxen zitxun, baina bere bezero fijua mataderixia zan"**

Errekadisten lana asko baloratzen zen, ez baitzegoen alde batetik bestera joateko medio handiegirik. Urteak aurrera joan ahala, transportea gehituz joan zen, eta "Animartek" 1969. urtean utzi zuen errekadista lana.

## GLORIA ARANGUREN. ERREKADISTA OHIA



*Gloria Aranguren eta bere ahizpa, urte askotan ibili izan dira errekadista lanak egiten. Duela 48 urte inguru hasi ziren lan honetan, eta 43 urtez Donostiako enkarguak egiten jardun dute. Orain dela 5 urte utzi zioten lanari, eta gaurkoan gure artera ekarri dugu lanbide bitxi honen berri emateko.*

# "Bizirik zauan bildotsa eruan naban behin Donostiara"

**Nola hasi zinen lan honetan?**
Hiru errekadista zaozen Elgoibarren, eta batek laga ein zaban. Gure ezaguna zanez, lana eskaini zigun, eta nere ahizpa hasi zan. Bera ezkondu eta umiak euki zitxuanian ni hasi nitzan bere ordez. Nik ere segitxuan euki nitxun umiak, eta orduan, Donostian emakume bat hartu gendun errekaduak eitxeko. Hemendik bialtzen genitxun paketiak fakturauta, eta Donostiako banaketia berak eitxen zaban.

**"Trenez juten ginan, eta gero Donostiako banaketia oinez eitxen gendun"**

**Nola moldatzen zinen errekaduak egiteko?**
Trenez juten nitzan, eta gero Donostiako banaketa guztixa oinez eitxen naban. Banaketa guztixa trazauta eukitzen gendun, eta ezin zan bat bera ere atzian laga, bestela denbora mordua galtzen zan. Garai hartan ez zauan autobusik, eta kotxiak ere oso gutxi zaozen. Goizian trena hartu, eta egun osua Donostian pasau ostian, iluntzeko trenian bueltatzen nitzan Elgoibarrera.

**Zein da errekadista baten lana?**
Papeleo lana eitxen gendun gehxienbat. Orduan Hazienda hiribururetan bakarrik zauan, eta beste instituzio danak ere Donostian zaozen. Enpresek hiru hilabetero ordainketak ein bihar izaten zitxuen Haziendan, eta hori dana guk eitxen gendun, Seguridade Sozialeko papelak, altak, bajak, parua, exportazioko papelak... Goizez ofizinako papeleo dana itxen gendun. Arratsaldez, jendiantzako zapatak edo erropak ekartzen genduzen. Elgoibarren denda gutxi zaozen orduan, eta jende askok eskatzen zizkigun holako errekaduak.

**Zein izan da egin duzun errekadu arraroena?**
Altzola eta Mendaroko errekaduak ere eitxen genduzen. Harek estaziora etortzen zian, eta bertan ematen ziguten enkarguak. Garai hartan basarri asko alokairuan eukitzen zian, eta Gabonetan baserritxarrek beren jabiei kapoiak edo beste zeozer erregalatzen zioten. Behin Mendarora etorri jatan bat, eta bildotsa sartu zaban trenan atzeko furgoian, eta fakturazio taloia eman zian neri. Donostiara iritsi nitzanian, bildotsa bizirik zauala ikusi naban, eta ez nakixan zer ein berakin. Egunero bazkaltzen genduan tabernan laga naban arratsaldera arte, eta gero taxi bat hartu eta entregau naban.

**Kontatzeko anekdotarik?**
Haziendako ordainketak eitxeko azken egunian, trena Orixo eta Usurbil artian estropeau ein zan, eta 12:00etan itxi eitxen zaben. Eibarko errekadistia, Bergarakua, Mutrikukua eta ni elkarrekin juten ginanez, danen papelak hartu eta milioi bat pezeta baino gehixo poltsan hartuta, mendixan behera bajatu, kotxe bat geratu eta Donostiara iritsi nitzan paguak eitxera.

## Urruzunoko Babes Ofi7laleko etxeak inauguratu ziren martxoaren 21ean

### Urruzunoko etxeetako bizilagunek hilean 70 eta 120 euro bitartean ordainduko dute alokairua

Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako kontseilaria, Jose Maria Oruesagasti Elgoibarko Alkatea, eta Iza eta Visesa enpresetako partaideak izan ziren joan zen martxoaren 21ean Urruzunoko Babes Ofizialeko etxeen inaugurazioan. Urruzuno auzoko bizilagun gehienek asteazkenean, martxoaren 20an jaso zituzten beren etxeetako giltzak, eta dagoeneko, bertan bizitzeko moduan daude. Etxebizitzaren tamainaren arabera, eta jabeen soldata kontuan izanik, bizilagunek hilean 70 eta 120 euro bitarteko alokairua ordainduko dute.





*40 etxebizitza inauguratu ziren Urruzuno auzoan.*

**Babes Ofizialeko etxeen arrakasta**

Javier Madrazok azken urteotan Babes Ofizialeko etxeak izaten ari diren arrakasta azpimarratu zuen. Kontseilariak azaldu zuenez, "563 elgoibartarrek eman dute izena Etxebideko zerrendetan, eta horietako %70ak urteko 21.000 euroko baino soldata bajuagoa daukate, beraz, ezingo lukete Merkatu Librean etxebizitzarik erosi". Honekin batera, etxebizitza erosteko arazo handiena gazte jendeak zeukala azaldu zuen Javier Madrazok. Babes Ofizialeko 40 etxebizitza inauguratu ziren Urruzuno auzoan, eta alboan, beste 120 babes ofizialeko etxebizitza egiteko obrak hasita daude. Honetaz gain, Ubitarte Gain auzoan beste 100 etxebizitza eraikitzeko proiektua dago. Urte gutxi batzuen buruan, Elgoibarren 270 babes ofizialeko etxebizitza egongo dira.

## Udal hauteskundeetan parte hartu ahal izateko 500 sinadura bffizeari ekingo dio Einbiou Plataformak




Einbiou Elgoibarko ezkertiar eta abertzaleen plataforma sortu berriak maiatzaren 25eko Udal hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuen azken bileran. Parte hartu ahal izateko 500 sinadura lortu behar dituzte. Sinadurak Elgoibarko Udaleko idazkaritzan (goizez) edo notaritzan (16:00etatik 19:00etara), Aita Agirre, 5 helbidean eman daitezke. Beharrezkoa da nortasun agiria eramatea eta elgoibarko erroldaren zerrendan agertzea.

Apirilaren 1 lra arte dago sinadurak emateko epea, apirilaren 16rako zerrendak osatuta izan behar baitituzte. Plataformatik adierazi digutenez astero biltzen jarraituko dute eta alor ezberdinetan arituko diren lantaldeak osatu dituzte: Komunikazio taldea, diruzantza edo ekonomi taldea, juridikoa eta herri programaz arduratuko dena. Sinadurak lortzearekin batera hauteskundeetarako zerrendak prestatuko dituzte, 17 zerrendagai eta hiru ordezko, alegia.

## Jende ugari hurbildu zen Muskildiko eta Haritzeko dantzariek eskainitako jaialdira



Elgoibar Xiberoarekin auzolanean egitasmoaren barruan Elgoibarko Haritz Dantza Taldeak eta Zuberoako Muskildiko dantzariek, dantza jaialdia eskaini zuten joan zen igandean, martxoaren 23an. Eguraldi bikaina egin zuen, eta jende ugari bildu zen Plaza Handian. Muskildiko dantzariek Zuberoako dantza tipikoak dantzatu zituzten, eta Haritz Dantza Taldekoek Bizkaiko Dantzari Dantza, Arratiako jotak eta Gipuzkoako Nesken Esku Dantza eskaini zituzten. Dantzaldiaren ostean, bi dantza taldeak elkarrekin bazkaldu zuten.

## Zuhaitz Egunean 30 lizar landatu zituzten Basarte auzoan

Zuhaitz Eguna martxoaren 22an ospatu zen arren, Elgoibarren martxoaren 2l ean, barixakuan, landatu zituzten zuhaitzak. Zapatuan ikasle gutxi hurbilduko ziren beldur aurreratu zuten eguna antolatzaileek aurreko urteetan gertatutakoari kasu eginez, eta bete betean asmatu zuten, inoiz baino ikasle gehiagok hartu baitzuen parte aurtengo Zuhaitz Egunean. Guztira 95 gaztetxo izan ziren Basarte auzoko inguruetara hurbildu zirenak. Udaleko lan taldearen laguntzaz 30 lizar landatu zituzten lanerako eguraldi aparta zeukatela aprobetxatuz.



## Alaitz Zialtzeta Barreneko bekaduna Uandakoa hil da

Joan zen martxoaren 25ean Alaitz Zialtzeta gaztea hil zen 23 urte zituela. Alaitz Zialtzeta Barrenen praktiketan aritu zen bekadun moduan publizista lanetan. Barreneko lantaldeak doluminak helarazi nahi dizkio bere familiari.



## Ordu aldaketa izango da larunhatetik igandera bitartean

Larunbatetik igandera bitarteko gauean ordua aldatu beharko da Europar Batasuneko arauei jarraituz. Martxoaren 29an ordubete aurreratu beharko da erlojua. Beraz, goizeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Ordua aldatzearen arrazoi nagusienetarikoa energia aurreztea da. Gogoratu beraz, asteburu honetan lo egiteko ordubete gutxiago izango dela.






ALAITZ ZIALTZETA BARRUTIA

*Alaitz, Gestio Eskolako ikasle, irakasle eta Zuzendaritza Zerbitzuko kideok zurekin bizi eta konpartitutako momentu guztiak beti gogoan izango ditugu.*

**Gestio Eskolako ikasle, irakasle eta Zuzendaritza Zerbitzuko kideak.**

### Zapatu honetan ordu aldaketa egingo da, 2:00etan 3:00ak izango dira

# BA AL DAKIZU ZERGATIK EGITEN DEN ORDU ALDAKETA?



### IÑAKI MAULEON
**43 urte, pintorea**

Energia aurrezteko egiten dela diote. Ez dit asko eragiten, baina ez zait gustatzen ordua aldatzea. Modu naturalean egingo balitz hobe izango litzateke.

### ITZIAR ELUS1 01111ijb
**24 urte, langabetua**

Energia ahorratzeko eitxen dabela esaten da. Nik ez dot ezer igartzen. Asteburuan juergarako ordubete gutxio eukiko dogu, baina gero eguna luziaua izango da.





### IDOIA BAGLIETO
**31 urte, etxekoandrea**

Egixa esanda, ez dakit. Nik sekula ez dot ezer igartzen, ordu aldaketak ez dit eragiten. Beharrezkoa bada, egin dezatela.

### MARIA JESUS AZPIAZU
**39 urte, etxekoandrea**

Energia aurrezteko egiten da. Nere ustez ondo dao, biharrezkua da, eta neri ez dia eragiten.





### CRISTOBAL LENDINEZ
**82 urte, jubilatua**

Energia aurrezteko egiten da, eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Lanik egiten ez dugunontzat berdin da, nire gorputzak ez du ezer igartzen.

### JUAN KRUZ MAKAZAGA
**50 urte, banatzailea**

Argi energia aurrezteko egiten da. Nire kasuan ez du ezertarako balio; Nire ordutegia dela eta, agian gastu gehiago izaten dut. Umeek igartzen dute, beti ordu berean jatera eta lo egitera ohituta daudelako.




EUSKAL HERR1AREN ESKUB1DEEN KARTA

AURKEZPEN HITZALDIA

Asteazkena, 2
19:30etan
Kultur Etxean

EUSKAL HERRIA

UDALB1LTZA

wwW,udalbiltza.net

2003-111-28



IDOIA ETA LUCIA
Kemen belardenda

## YOGA, EGOKI BIZITZEKO ARTEA

oga, norberak bere burua ezagutzea da. Horretarako, geure barnean hiru aspektu ezagutu behar ditugu: izpiritua, materia eta energia. Materia ikusi egiten da, energiak materia hori martxan jartzen du eta izpiritua yogaren bitartez aurkitu behar dugu.
Geure burua ondo begiratu behar dugu, garen horretan bihurtzeko. Ariketa praktikoak geure barneko egonkortasuna lortzen lagunduko digu, geure pentsamoldea aldatuz.
Yogaren bameko teknika, meditazioa da.

## YOGA ETA OSASUNA

Gizakiak egiten dituen hanka sartze guztiei irtenbidea positiboa eskaintzen dio yogak. Barne mundu horretarako bidea da, arazoa gizakiak bidea kanpoko aldera egiten duela da, eta bilatzen ari den hori, barruan dago.
Dieta aldatu behar da, amasa hartzeko modua, sedentarismoa ariketa fisikoagatik ordezkatu, tentsioa erlaxazioagatik eta pentsamoldea kontzentratzen eta meditatzen ikasiz.

*Idoia Martikorena*
*Sanatana Dharma eskolako irakaslea*

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeko 943 74 41 12ra



# osasuna

## Osasun txokuak

### MASAJISTAK
**Victoria Iraegi**
P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach. masaia, makrobiotika, yogal
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK
**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia. audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK
**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK
**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu,**
**deitu 943 74 37 04ra**

# Clola ALDATU diren gauzak!

2003-III-28



**1963.** urte ingurukoa da erretratu hau. San Frantzisko kalea eta Madalako auzoa ikusten dira bertan. Aspaldiko erretratua izan arren, benetan ikusgarri ageri da gure herria. Argazkiaren atzeko partean, San Roke bailara eta San Lorentzo auzoko zati batzuk ere, ageri dira. Ikusten den bezala, San Roke bailarako ingurunea nekazalgune garrantzitsua zen garai hartan, eta lan handia egiten zen nekazaritza alorrean. Etxebizitzarik ez da ageri oraindik auzo honetan, baina Guardia Zibilen Kuartela eta Bernardo Ezenarro Institutua ikusten dira erretratuan. Honetaz gain, Karakate eta Hirukurutzeta mendiak ikus ditzakegu. Leku askotako jendea etortzen zen garai hartan mendi hauetara ibilaldiak egitera, eta gaur egun ere, mendizale askoren topaleku dira mendi hauek.

**2003.** urteko argazkian zeharo diferente ageri da gure herria. Ikusten den bezala, Elgoibar asko aldatu da azken urte hauetan. San Roke auzoan etxebizitza ugari, eta eskola berriak eraiki dituzte. IMH esate baterako, bere museo eta guzti, oso dotore ageri da gaur egun. Kanpoko eta bertako ikasle ugari ibiltzen da bertan. Tenis pista, tabernak... denetarik iku'sten da gaur egun ingurune honetan. Mintxetako futbol zelai berria ere eraiki dute bertan. Sekulako dotore ageri dira Mintxetako kirol instalazioak igerileku eta guzti! Gaur egun auzo garrantzitsua da San Roke. Orokorrean, Elgoibar asko handitu dela esan daiteke.

**Juanito Gorostiza**





***ESKERTZA***

*2003ko martxoaren 17an, 86 urte zituela hil zen MARIA ANGELES AZKUE VILLARen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Ki BaRRen

2003ko martxoaren 28a/XI. urtea/Y3. zkia

## Mendaroko Talde Independentea aurkeztu da

### Esti Gallastegi izango da zerrendaburua hauteskundeetan



Joan zen larunbatean, martxoaren 22an, MTIren, Mendaroko Talde Independentearen, aurkezpena egin zen Trinitate ermitan. Bertan, zerrendaburu izango den Esti Gallastegik aurtengo hauteskundeei begira MTIren proposamenak zein diren azaldu zuen eta talde argazkia atera zuten ondoren.

Arau subsidiario berrien ondorioz, maiatzaren 25eko hauteskundeek Mendaroren etorkizunerako duten garrantziaz mintzatu ziren, izan ere, horiek aurrera eginez gero, Mendaroko hedadura urbanizatua bikoiztu egingo litzateke. Bestalde, EAJk orain arte izan duen gehiengo absolutua apurtzeak duen inportantziaz ere hitz egin zuten. Arauek aurrera eginez gero, Mendarok edukiko lukeen itxura azaltzen zuten planoak alboan zituztela, beren iritziz, hain aldaketa nabarmenak ekarriko lituzkeen kalteei buruz hitz egin zuten, eta udalaren "gauzak egiteko moduarekin" duten ezadostasuna adierazi zuten. " Udala herritarrentzat zerbitzu bat izan behar da eta, hala izan beharrean, Mendaroko herriari bizkarra eman dio. Gure ustez, askoz irekiagoa izan beharko litzateke eta hori da aldatu nahi duguna".

Datozen bi hilabeteetan kanpainaren inguruko informazio gehiago zabalduko dutela adierazi zuten. Azkenik, helburu hauek lortu ahal izateko botoen bidezko laguntza eskatu zieten Trinitaten bildu ziren herritarrei.

## Isabara irteera egin zuen In Leikek



Duela 2 asteburu Isaba aldera irteera egin zuten 15 bat mendarotarrek In Leikek antolatuta. Bertako aterpetxe batean igaro zituzten bi egunak, eta, eguraldia ere alde izan zutenez, hainbat ekintzaz gozatu ahal izan zuten, "kriston egualdixa in zigun ta oso oso ondo pasau gendun". Larunbatean, mendi irteera egin zuten Txipeta mendira eta, igandean, berriz, lagunetako batzuek mendiko eskia pralctikatu zuten inguruko parajeetan.

Gainera, bi aste barrurako ere, apirilaren 5erako, beste irteera bat antolatzen ari dira In Leikekoak. Oraindik zein tontor egingo duten zehaztu gabe duten arren, goiz parteko mendi ibilaldi labur bat egiteko asmoa dute eta, ondoren, sagardotegi batean bazkalduko dute animatzen diren guztiek.

## Zaharren biltokiko karta-jokoen finalak

Duela egun gutxi karta jokoen finalak jokatu zituzten Lagun Betikoak zaharren biltokian. Hauek izan ziren bikote irabazleak: puntxoan, Maria Luisa Txurruka eta Maria Arakistain; musean, Mikel Iriondo eta Jose Arriola; seietan, Serafin Gonzalez eta Marichi Gonzalez eta, tutean, berriz, Placido Ronda eta Gregorio Rubio.

## "Munduko bira txirrinduz" diapositiba emanaldia

In Leikek antolatuta, Eneko Etxebarrietak "munduko bira txirrinduz" diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, ostirala, 22:00etan, Mendaroko Udaleko Otarre Aretoan. Hurbiltzen diren guztiek 4 urtean, 45.000 km-an zehar eta 35 herrialderen luzezabaletan barna egindako bidaiako kontakizunak entzun eta ikusi ahal izango dituzte protagonista beraren

## Trinitateko ermitako kanpaiaren zaharberritzea

Trinitateko ermitako kanpaia, 1785. urtekoa dena, nahiko zaharkitua zegoela eta zaharberritzera eraman dute duela egun gutxi. Eraberriketa lanak Mendaroko "Construcciones Menicas Iriondo" enpresan egingo dira eta Ekainaren erdialdera ospatuko diren Trinitate jaietarako bukatuta egotea espero da.

Kil maRRen
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Arau subsidiario be

*Martxoaren ban Izandako azken udalbilizan egin zen Mendaroko Arau Subsidiario berrien hasierako-onarpena. Arau Subsidiarioak herri baten Hirigintza dokumentu garrantzitsuenak dira, bertan erabakitzen baita herriak bere garapenean (arraituko duen bidea. Azken plenoan bi botazio egin ziren: Arau Subsidiario berrien gainekoa bata, eta Kukuko proiektuaren modifikazioaren modifikazioarena, bestea (aurrez Foru Aldundiak trabak jarri baitzizkion proiektuari).*

*Oposizio osoa (EA, Batasuna eta Mendaroko Talde Independentea) arau berri horien aurka agertu zen, baina EAJk Mendaron gehiengo absolutua du (EAJk 5 zinegotzi ditu, Batasunak 2, MTIk 1 eta EAk 1), eta aurrera egin dute.*

*Erreportaje honetan, EAJk aurrera atera nahi duen proiektua eta, jeltzaleen iriiziz, horrek ekarriko lituzkeen onurak jaso ditugu oposizioaren kontrako argumentazioekin batera. Horretarako, EAJko urbanismoko zinegotzi den Irune Berasaluzerekin eta MTIko zerrendaburu izango den Esti Gonzalezekin minizatu gara.*

## EAJREN AUZOETAKO INTERBENTZIO IRADOKIZUNAK (www.mendaro.net)

### AZPILGOE

1-0spas baserriaren azpiko lursaila bete eraikuntza erdizirkular baten bidez, eta, era berean, lur azpiko aparkaleku batekin plaza bat osatu. Horrek 26 zenbakidun eraikuntza botatzea dakar.
2-Azpilgoeta 28 eta 30 ingurua birmoldatu, "Batu" industria ezabatuz.

### MENDAROZABAL

1-0spitaleko mendebaleko hegalean intentsitate ertaineko bizigunea eraiki.
2-0spitalearen iparraldeko hegalean intentsitate baxuko bizigunea eraiki.
3-Ikastola handitu.
4-Ospitalearen aparkalekua zein eraikuntza bera handitu.
5-Egun dagoen sektore industriala handitu.

### GARAGARTZA

1-Garagartza Komentuko Kapila berreskuratu ekipamendu kultural gisa, eta 40 etxebizitza mailakatu eraiki Komentuko ortuaren inguruan.
2-Antzinako ikastola Eguneko Zentro gisa berreskuratu.
3- Bizitzeko egoera txarrean dauden etxebizitzak ordezkatu, haien tokian berriak eraikiz.

### HARROBIA

1-Aizkoltxo izeneko mendixka botata, lehendik dagoen industrialdea osatu.
2-Gaur egungo fabrikak berrantolatu, Quivaren alineazioak aldatuta eta Prefabricados Etxeberriako eraikuntza berrantolatuta.
3-Prefabricados Etxeberriatik hasita, zubi berri bat eraiki.
4-CN-63 bidegurutzea berrantolatu, pabiloi industrialen multzorako sarbidea errotonda berri baten bidez eginez.

### P AZA

1-5/98 legearen arabera, gaur egun dagoen etxebizitza kopurua handitzeko aukera ematen da.
2-Hutsik dauden partzeletan, 8 eraikuntza berri ezartzea proposatzen da.



IRUNE BERASALUZE
Udaleko Hirigintza arduraduna

proiektu honek aurrera eginez gero, lurren hedadura bikoiztu egingo litzateke, oraingo 263.001 m2-ei beste 270.600 m2 gehituko litzaizkieke eta, etxebizitza kopuruarekin ere berdin, oraingo 725 etxebizitzei 800dik gora gehituko litzaizkieke.

Honakoak dira EAJk arau berriak onartzeko ematen dituen arrazoiak. Alde batetik, orain arte Mendarok izan duen garapena egokia eta onuratsua izan dela diote eta, herriak hazi egin behar duela bizi kalitate hobea edukitzeko, "guztiz logikoa da pentsatzea biztanle gehiagoko herri batean zerbitzuak ere gehituz joango direla". Bestalde, enpresak kokatzeko lurrak egokitzea beharrezkotzat jotzen da, Mendaro, "lotarako herri" bilaka ez dadin. Jeltzaleen esanetan, epe luzera begiratu behar da Arau Subsidiarioak egiteko orduan, eta gero, "beharrak eta demandak ezarriko dute garapenaren erritmoa".

rriak




## OPOSIZIOAREN ERANTZUNA



ESTI GONZALEZ
MTIko zerrendaburua

Oposizioak, aldiz, gauzak oso era ezberdinean ikusten ditu. Hasteko, ez daude bat ere ados udalaren gauzak egiteko moduarekin, "herriko jendiari entzun gabe in dabe dana, beren gehiengo absolutuaz baliatuz, eta modu hori ez da justua, jendia ez dao gustora. Udala herritxarren nahixak analizatzeko zerbitzu bat izan bihar da, ez guztiz kontrakua".

Gainera, Kukuko modifikazioaren modifikazioa Arau Subsidiarioen onarpenaren pleno berean planteatzea oso susmagarria dela diote "etxebizitza posible hoien kontzentrazio haundixena, 178 danera, Kukuko inguru horretan jungo litzake, eta argi ikusten da nolako interesa dakaben hori lehenbailehen aurrera atatzeko. Arauak Subsidiarivak aprobatzeko 2 edo 3 urte tardauko ditxue, ta ze in dabe? Ba, Kukukua aparte presentau. Hola, normak aprobau gabe etxebizitzak eraiki laikez hor".

Bestalde, Kukuko proiektuak aurrera eginez gero, herriaren nukleoa aldatu egingo litzatekeela arrazoitzen dute, "beste auzo berri bat sortuko litzateke, eta, gure ustez, hazkunde logikuena herrixa barrutikan kanpora haztia da". Gainera, arauak "desproportzionatuak" direla diote "Aizkoltxon ere industrialde berrixa in nahi dabe, jakinda, Mendaron in zan lehenengo industrialdian oindikan pabiloi pila bat saldu gabe daudela. Gainera, horretarako 2 baserri desjabetu nahi ditxuzte. Desproportzionaua da dana herrixan biharrei begira".

Dena den, munizipalki egin daitekeen guztia eginda dagoela diote, "hau dana boletin ofizialian azaltzen danetikan hilabete bateko epia dau alegazivak itxeko. Udalak alegazio hauek erantzun bihar ditxu eta hori diputaziora dijua: proiektua + alegazivak. Eta diputazivan erabakixan zain egon bihar."

Airean da, beraz, Mendaroren etorkizuna. Etorkizun polemikoa, nolanahi ere. Herrixka ala hiritxo? Denborak esan beharko du.

,40Piij* *14.4'



ilabete honetako erretratu zaharra **Libe Iriondo Mugerzak** laga digu. Aingeru Guardako jaietan ateratako argazkia da. Korrika lasterketa hasteko prest dagoen unean ateratako erretratua da, hain zuzen ere. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren korrikalari hauek.

Ezkerretik eskumara: **Floren Mendikute, Juan Agustin Esnaola, Jose Zabala, Julian Urrusolo (t), Jose Mari Arrillaga (t), Manolo Landa, Jabier Urrusolo** eta **Jose Mari Zabala.**

Makila eskuan duela, irteera prest emateko dagoen mutila **Manuel Iriondo** da.

# informazioa

## Farmazia okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 28 | Bidasolo | Bidasolo |
| 29 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 30 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 31 | Fernandez | Fernandez |
| 1 | Yudego | Yudego |
| 2 | Zabaleta | Zabaleta |
| 3 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 4 | Ibañez | Ibañez |

**FARMAZIAK**

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

yu Igunaeu Doña Mercedes

## Eusko, Eusko'ren

**AUTOBUSAK**

**DONOSTIA-BILBO**
**Egunero**
Donostia »6RA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7.48ean hasika dira

**BILBO-DONOSTIA**
**Egunero**
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

**MENDARO-ELGOIBAR**
**Egunero**
**Mendaro** 07.50 08.50... 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 10.25... 21.25

**Jaiegunetan**
**Elgoibar** 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PESIYAUrOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

**EIBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00.30 | **02.30** | **04.30** | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

**ONDARROA-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoihar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eihar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

**EIBAR-MUTRIKU**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eibar** | **01.00** | 02.30 | 04.30 | 06 00 |
| Elgoihar | 01.10 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Deba | 01.20 | 02.50 | 04.50 | 06.20 |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

**MUTRIKU-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Deba | 00.05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Eibar | 00.25 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

**EIBAR-ALPEITIA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Elgoibar | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Azkoitia | 01.50 | 03.50 | 05.50 |
| Azpeitia | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

**AZPEITIA-EIBAR**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02.30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02.35 | 04.35 |
| Elgoihar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | 04.55 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko in ormazio hulegora.* ***TeL 902 101 210.***

## INTERESEKO -- TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulatorioa ........... ................ 03 26 10
Planning-a ................................ 943 74 29 50
Alkoholiko Anommoak .............. 943 74 03 85
D Y.A (anbulantzia) ...... ................ 46 46 22
Gurutze Gorria ......................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ..................... 943 03 28 00
Odol Emaileak ......... ................ 74 39 36

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak ........................ 943 74 04 42
PESA (Eibar) ............................ 902 10 12 10
Taxi geltokia ................ 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbitzua ........................ 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ..................... 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ........................ 943 74 21 58
Mendaroko Udala ........................ 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ........................ 943 74 10 08
Udaletxea .................................. 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............................ 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra ......................... 943 74 16 26
KIroldela ................................ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ........................ 943 74 30 88
Libu rutegia .............................. 943 74 35 25
Musika Eskola ............................ 943 74 21 45
Mintxeta .................................. 943 74 43 15
Parrokia .................................. 943 74 08 42
Postetxea .................................. 943 74 15 47
Gaztetxea .................................. 943 74 35 72
Gazte Informazioa ....................... 943 74 14 61

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza ...................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ......................... 943 74 05 26
Egu neko Zentroa ........................ 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola ................................ 943 74 21 41
HHI (EPA) ................................ 943 74 08 80
Herri Eskola .............................. 943 74 08 79
I.M.H ........................................ 943 74 41 32
I nstrtutua
Arreiturre .............................. 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ........................ 943 74 80 19
I kastola .................................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............................ 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN ...................................... 943 74 41 12
El Diario Vasco ........................ 943 74 40 73
El Correo Español ....................... 943 74 10 82
Zazpiki irratia ............................ 943 74 34 74
Eg unkaria .................................. 943 30 02 28
Gara .......................................... 943 31 69 99

# 1168 ikasle matrikulatu dira 2003/2004 ikasturterako Elgoibarko ikastetxeetan

## Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko datuak dira honakoak

*Urtero bezala aurre-matrikulazio kanpaina bukatu ostean, Elgoibarko ikastetxeetara jo dugu, ikasturte berrian egin den matrikulazio kopurua ezagutzeko asmoz. Jaso ditugun datuen arabera, 1168 ikasle matrikulatu dira datorren ikasturterako Elgoibarko ikastetxeetan. lazko datuekin konparatuz, matrikulazio kopurua handitu egin* **da.** *Aurten 40 ikasle gehiago matrikulatu dira. Ondorengo tauletan, Elgoibarko ikastetxeetako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko datuak jaso ditugu.*

| MAILAK | IKASL | |
|---|---|---|
| | 02/03 | 03/04 |
| **Haur Hezkuntza** | | |
| HH2 | 31 | 40 |
| HH3 | 25 | 43 |
| HH4 | 36 | 25 |
| HH5 | 40 | 37 |
| **Lehen Hezkuntza** | | |
| LH1 | 26 | 40 |
| LH2 | 33 | 26 |
| LH3 | 24 | 34 |
| LH4 | 28 | 24 |
| LH5 | 33 | 30 |
| LH6 | 40 | 31 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** | | |
| DBH1 | 33 | 42 |
| DBH2 | 39 | 32 |
| DBH3 | 48 | 43 |
| DBH4 | 36 | 43 |
| GUZTIRA: | 472 | 490 |

Ilar Ikastetxea

| MAILAK | IKASLEAK | |
|---|---|---|
| **Haur Hezkuntza** | | |
| HH2 | 15 | 9 |
| HH3 | 5 | 18 |
| HH4 | 20 | 5 |
| HH5 | 13 | 21 |
| **Lehen Hezkuntza** | | |
| LH1 | 19 | 13 |
| LH2 | 17 | 21 |
| LH3 | 20 | 19 |
| LH4 | 18 | 19 |
| LH5 | 24 | 19 |
| LH6 | 19 | 24 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** | | |
| DBH1 | 28 | 20 |
| DBH2 | 28 | 27 |
| DBH3 | 30 | 28 |
| DBH4 | 18 | 23 |
| GUZTIRA: | 274 | 266 |

Herri Eskola et

| MAILAK | IKASI EAK | |
|---|---|---|
| | 02/03 | 03/04 |
| **Haur Hezkuntza** | | |
| HH2 | 23 | 30 |
| HH3 | 43 | 36 |
| HH4 | 38 | 44 |
| HH5 | 19 | 36 |
| **Lehen Hezkuntza** | | |
| LH I | 29 | 20 |
| LH2 | 20 | 27 |
| LH3 | 25 | 23 |
| LH4 | 13 | 25 |
| LH5 | 28 | 12 |
| LH6 | 22 | 29 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** | | |
| DBH1 | 22 | 19 |
| DBH2 | 40 | 34 |
| DBH3 | 35 | 40 |
| DBH4 | 25 | 37 |
| GUZTIRA: | 382 | 412 |

## Murphyren legearen inguruko umorezko antzezlana eskainiko du Vaiven Antzerki Taldeak apirilaren 4an

### Sarrerak aurrez salduko dira Kultur Etxeko Kultura Zerbitzuan

Zerbait gaizki atera badaiteke, gaizki aterako da; edo beste modu batera esanda, tostada beti jauzten da lurrera mantekilaren aldetik. Murphyren legea horrelakoxea da, amorragarria, eta inork ezin die lege hauei ihes egin. Gutako bakoitza izan da, merezi ez arren, egunerokotasuna izorratzen diguten lege hauen biktima noiz edo noiz. Idatzi gabeko lege ezagun hauek izan ziren Ana Pimentaren eta Santiago Sueirasen inspirazio iturri eta Ander Elizondok idatzi zuen ondoren "A cuestas con Murphy" antzezlana. Vaiven Antzerki Taldeak, elkargurutzatzen diren 9 pertsonaiaren istorioa osatu zuen. Pertsonaia errealak dira, ikusleek euren buruak identifikatuta sentitzeko modukoak. Umore garratza, ironikoa eta aldi berean xamurra darabilte. Izan ere, bizitzan aurrera jarraitzeko gakoa umorea izaten da askotan. Apirilaren 4an, barixakuan, izango da emankizuna 22:15ean Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez salduko dira, goizez, Kultur Etxeko Kultura Zerbitzuan.



## Donostiako Zurriola Musika Eskolarekin elkartrukea egin du I. Bereziartua Musika Eskolak



Inazio Bereziartua Musika Eskolak urtean behin beste Musika Eskola batekin harremanetan jartzeko ohitura du. Aurten Donostiako Zurriola Musika Eskolarekin egin dute elkartrukea. I. Bereziartua Musika Eskolako ikasleak martxoaren 21ean izan ziren Gipuzkoako hiriburuan kontzertua eskainiz. Zurriolakoek astelehen honetan, martxoaren 24an, itzuli zieten bisita eta Musika Eskolako auditorioan eskaini zuten kontzertua. "West Side Story" (L. Bernstein), "Sinosuke Sintxan" (C. Norton), "Boogie Woogie" (G. Schwertberger), "Lau Teilatu" (Itoiz) edo "Jurassic Park" (J. Williams) moduko piezak entzun ahal izan zituzten bertara hurbildutakoek.





erna

EiZe@ffill@C3 E)

egunero 7:00etan
i rekitzen dugu

41444,44
/419 43

San Frantzisko, 60
t el.943 74 19 43





_14_ Ki,_1091

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

2003-111-28



## YOLI MATEOS, LEVANTEKO JOKALARIA

# "Levanten jokattu nire ametsa bete dut, nahi baino berandugo izan arren"

*Yolanda Mateos (31 urte) futbolean jokatzeagatik dirua irabaziko duen lehen elgoibartarra izango da, Levante futbol taldearen eskaintza onartu ostean. Eibartarrak taldean jokatzen zuen orain arte eta hemendik liga bukaerara arte valentziarrei lagunduko diega irabazten, nesken futbolean dagoen mailarik gorenean. Levante taldea Espainia eta Europa mailako onenetarikoa da, jokalari profesionalez eta internazionalez osatua.*

**Levante ratboi taldeaŕ berri zaitu. Nolatan izan da'.** Espainiako nesken futbol talderik indartsuena izan arren, uste baino denboraldi txarragoa egiten ari ziren. Entrenatzaileak golak sartzeko norbait behar zuen eta falta diren ligako 5 partiduak jokatzera joateko eskaintza egin zidan. Taldea eta jokalariak motibatzeko ere fitxatu ninduen. Titular postua ziurtatuta ikustean jokalari asko lokartu eta errendimendua jaitsi dutela pentsatzen baitu entrenatzaileak.

**Asko kosta al zitzaizun erabakia hartzea?** Piska bat bai, bizimodu guztia egina bainuen Elgoibarren; iaz ezkondu nintzen, pisua erosita... baina damutzeko motiborik ez izateko ezin nuen aukera pasatzen laga. Duela 6 urte adibidez, Huelvatik deitu zidaten eta ez nintzen joan. Esperientzia berri bat bizitzearen aldeko apustua egin dut oraingoan. Eibartarrak; nire betiko taldeko lagunek ere asko animatu ninduten.

**Levanteko entrenatzailearen eskaintzak harritu al zintuen?** Pixka bat bai. Espainiako selekzioan jokatzetik ezagutzen ninduen, baina une honetan deitzeak harritu nau gehien, talde honek 4 edo 5 urte baitaramatza goi mailan eta jokalariei soldatak ordainduz.

## "Jokatzeagatik ordaintzen digutenez, gehiago exijitzen digute"

**Beranduegi iritsi zaizu aukera hau, agian?** Hain justu Eibartarrak taldean denboraldia bukatu eta futbola lagatzea zen nire asmoa. 31 urte ditut orain, baina 27 edo 28 urterekin harrapatu izan banindu oso bestelakoa izango zen. Fisikoki oso ongi nago oraindik, baina garai hartan ohikoa nintzen Espainiako selekzioan eta nire futbol karrerako mailarik onenean nengoen. Dena dela, 14, urte daramatzat futbolean eta amets bat egia bihurtzea modukoa izan da. Gustatzen zaidanean jarduteagatik ordaintzea opari moduan hartu behar dut, berandu izan bada ere.

**Futbolean jokatzearren soldata kobratzen duen lehen elgoibartarra izango zara, ezta?** Bai. Itziar Gurrutxaga eta Eli Ibarrak ere maila berean jokatzen dute, baina Athleticen oraingoz ez dute kobratzen.

**Noiz arte sinatu duzu kontratua?** Printzipioz liga bukaerara arte, bi hilabete inguru. Hurrengo 3 hilabetetan Erreginaren kopa jokatzen da eta bi aldeok gustura bagaude kontratua luzatzeko aukera dut. Gero datorren urteko denboraldiaz hitz egingo genuke.

**Nola doa liga txapelketa?** Liga bukatzeko 3 partidu besterik ez dira falta eta dena dago airean, nahiz eta Athleticek dituen aukera gehien liga irabazteko. Momentuz, laguntzeko aukera izan dut. Debuteko partiduan gol bat sartu nuen eta domeka honetan bigarren zatian atera arren, goleko pasea eman nuen.

**Zertan igarri duzu aldaketarik gehien'?** Batez ere alor fisikoan, hemen egunero entrenatzen baitugu. Prestatzaile fisikoa eta talde tekniko zabala daukagu. Bestalde, presioa ere askoz handiagoa, da jokatzeagatik ordaindu egiten digutenez gehiago exijitzen baitigute.

# Mendia eta baba jana uztartu zuten 50 herritarrek Morkaikorekin



Mugarra mendian izan ziren 50 lagun Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako azken mendi irteeran. Antolatzaileek autobusean joateko prestatu zuten irteera, baina Bizkaiko autobus gidarien greba zela-eta, 12 kotxetan joan ziren izena eman zuten 50 elgoibartarrak. Leungana (1009 m.), Artatzagan (995m.) eta Mugarra (964m.) mendiak igo zituzten 5 orduko ibilaldian. Ondoren, Dimako Artaun auzoan dagoen Azurmendi jatetxean berreskuratu zituzten indarrak baba jan ederrarekin. Soinu eta pandero doinuek alaitu zuten bazkalondoa eta iluntzerako Elgoibarrera itzuli ziren.

**Bazkideentzat oharra**

Morkaikoko zuzendaritzakoek honako oharra zabaltzeko eskatu digute, "gaur, martxoak 28, bazkide kuotaren zenbatekoa pasako dizuegu ohiko kontu korrontetatik. Zoritxarrez, informatika arazoak direla eta, lehengo urtean pasa genuenetik jaso ditugun aldaketa batzuek galdu egin dira. Horregatik, mesedez eskatzen dizuegu, aldaketaren bat proposatu baldin badiguzue azken urtean, berriro ere aditzera emateko. Horretarako, idatzi e-posta bat helbide hontara (morkaiko@hotmail.com) edo agertu Errosario kaleko bulegotik ohiko ordutegian.

# Denbora bikainak egin zituzten elgoibartarrek Eibarko Igeriketa unnelkoan

Elgoibarko lgeriketa Taldeko ordezkariek Eibarko Igeri Txapelketan hartu zuten parte duela gutxi. Bertan 100 metro estilotako proban egin zuten igeri benjamin mailako gaztetxoek. Honako hauek izan ziren parte hartzaile elgoibartarrak: Alejandra Pascual, Alba Zangitu, Josu Espilla, Eneritz Aizpitarte, Ainhoa Agirre, Maria Barrenetxea eta Aitor Etxeberria. Alebin mailan, berriz, Jaboba Egaña 100 metro libretako proban lehiatu zen. Guztiek ere entrenamenduetako denborak jaistea lortu zuten eta pozik itzuli ziren etxera.




## EMAITZAK

**Futbol'**

Hernani 0 - Haundi 2 (Pref.)
Elgoibar 0 - Tolosa **0 (Inf.)**
Zumaiako **2 –** Elgoibar 1 **(1. erreg.)**
Aurrera Ondarroa **3 –** Elgoibar **1 (Kad.)**
Elgoibar 0 - Tolosa **0 (Inf.)**
Amaikak Bat 0- Elgoibar **3 (Neskak)**
Pedrusko **5 –** Soraluze 0 (1. **erreg.)**

**Esku pilota**

**Deharroko Txapelketa**
Eibar **7** - Lagunak **22 (Kad.)**
Eibar **22** - Lagunak **0 (Nag.)**
**Udaberri Saria**
San Esteban **22 –** Lagunak b **12 (Nag.)**
Lagunak a **16 –** San Esteban **22 (Nag.)**
Lagunak b 11 - Lazkao **22 (Kad.)**
Lagunak b **22 –** Ikaskirola **20 (Kad.)**
Lagunak a **22 –** Aurrera **11 (Kad.)**

**Eskubaloia**

Sanlo Elgoibar **19 –** Bera Bera **18 (Sen. nesk.)**
Tecnifuelle Elg. **26 –** Trapaga **22 (Sen. mut.)**
Tecnomeca Elg. **38 –** Ereintza **22 (Kad. mut.)**
Pneumax Elg. **38 –** Ereintza **25 (Jub. mut.)**
Eharialdea **17 –** Pagoaga Elg. **13 (Kad. nesk.)**
Eharialdea **20 –** Cometel Elg.13 **(Jub. nesk.)**
Gatz Museoa **23 –** Gaur Elg. **19 (Jub. mut.)**
Urdaibai **27 –** Pagoaga Elg.16 **(Kad. nesk.)**
Urdaibai **18 –** Cometel Elg. **24 (Jub. nesk.)**

**Areto Futbola**

Lanbroa 3 – Clinica Dental Aldaz **5 (1. maila)**
Pedel **6** - Kenci Elg. **6 (Nazional B)**

## AGENDA

**i3ola,** Kiroldegian

**Zapatua, 29**
**16:00** Kenci Elg. – Metales San Jorge **(Nazional B)**

**Futbola,** Mintxetan

**Zapatua, 29**
**16:30** Haundi - Anaitasuna **(Pref.)**
**18:15** Elgoibar – Ilintxa **(1. erreg.)**
**Domekia, 30**
**10:30** Elgoibar - Tolosa **(Kad.)**
**12:00** Elgoibar - Idiazabal **(Jub.)**
**16:30** Elgoibar - Mondragon **(Neskak)**

**Eskupilota,** Ikastolar,

**Barixakua, 28**
**Udaberri Saria**
**22:00** Lagunak – Ilunpe **(Jub.)**
**Martitzena, 1**
**Debarroko Txapelketa**
**19:00** Lagunak - Oskarbi **(Kad.)**
**20:00** Lagunak - Oskarbi **(Nag.)**

**Zapatua, 29**
**18:30** Gaur Elg. – Arrate **(Jub. mut.)**
**Domekia, 30**
**11:00** Pagoaga Elg. - Ermua **(Kad. nesk.)**
**12:30** Cometel Elg. - Ermua **(Jub. nesk.)**

# merkatu txikia



**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## ih 4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko enpresak Catia V.5 operadorea behar du. Erref. 98096/3

Durangoaldeko enpresak kontablea behar du. Erref. 99118/4

Donostialdeo enpresak enpresaritzan diplomatua behar du. Erref. 98672/3

Urola Erdiko enpresak komertziala behar du. Erref. 98803/2

Bilboko enpresak sendagilea behar du. Erref. 98423/4

Debabarreneko enpresak RRHH zuzendaria behar du. Erref. 98599/2

Debabarreneko enpresak salmenta arduraduna behar du. Erref. 98598/3

Durangoaldeko enpresak ingeniaria behar du. Erref. 98098/3

Urola Erdiko enpresak galdaragilea behar du. Erref. 99104/2

Durangoaldeko aldi baterako enpresak soldatzailea behar du. Erref. 97526/4

Urola Erdiko enpresak mekanikoa behar du. Erref. 99107/2

Azpeitiko aldi baterako enpresak mekanikoa behar du. Erref. 98524/3

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristil **943 74 80 19** edo IMH (Nora Raman) **943 74 41 32** telefonora.

### ESKAERA

Mutila buzoneo lanak egiteko prest. Tr 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)

Emakumea etxeko lanak egin, umeak edo gaixoak zaintzeko prest. 943 03 03 21 (Mertxe)

Emakumea umeak zaintzeko prest. Klinika auxiliar esperientziaduna. tr 943 74 30 04 (Elena: 20:00etatik aurrera)

Emakumea asteazkenetan garbiketa lanak egiteko prest. iz 943 74 22 01 (Araceli)

20 urteko mutila edozein lan egiteko prest, ahal loada tailerrean. Mekanizatu titulua daukat. cr 943 74 46 14/609 93 61 86

### ESKAINTZA

e Basarten zerbitzaria behar da. cr 943 74 34 26

Barrarako kamarero euskalduna behar da. tr 943 74 04 90

Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaintzeko. Elgoibartarra, eta ahal bada euskalduna. Ir 943 74 11 60/943 74 21 20

Mutil edo neska behar da tabernan lana egiteko. Astean zehar arratsaldez, eta asteburuetan. Txandaka. cr 943 74 28 97

## Etxebizitzak

Pisua salgai San Roken. Eguzkitsua, berritua, komuna, berogailu zentrala. rr 943 74 01 74/609 15 58 30

Logela alokatzen da. a 943 74 18 81

Baserria salgai Madarixa auzoan. tr 943 20 08 20 (20:30etatik aurrera)

Etxea alokatzen da Luz Ardidenen Aste Santurako. 6 lagunentzat, 360 euro. cc 615 75 02 86

Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan. tr 626 91 49 04 (Rosa)

* Etxea salgai Elgoibarko erdialdean. Eraberritua, kanpora begira, berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tr 943 75 62 94/635 70 64 47

Duplex apartamentua alokatzen da Menorkan. 4-6 lagunentzat, hondartza ondoan, erabat amueblatua. Tr 902 10 32 87

Etxea alokatzen da Elgoibarren. IT 615 72 36 12 (astegunetan 20:00etatik aurrera. Asteburuan egun osoan)

• Pisua osatzeko jendea behar da. 17 610 45 85 52 (21:00etatik aurrera)

Etxebizitza salgai Berrizen, berrituta, amueblatuta, bizitzera sartzeko moduan. 15· 626 84 18 70

## Partikularrak

4 ingeleseko klase partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. cr 943 74 31 67 (Nekane)

## Garajeak

• Garajea hartuko nuke alokairuan Santa Klara inguruan. tr 943 74 26 21

• Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, sarrera onarekin. tr 660 79 53 01

## Bestelakoak

Ume baten kazadora bakeroa galdu dut. Barrutik gorria da, negukoa. Aurkitu duenak deitu mesedez. Tr 943 74 38 53 (Edurne)

• Urrezko pultsera galdu dut. cr 943 74 22 63

## Salerosketak

• Aulki elektrikoa salgai. Merkea. *Ti* 943 74 22 05 (Pilar)

• Argazki kamerantzako objetiboak salgai. Sigma 70-210mm eta 50mm. Egoera onean eta merke. tr 943 74 43 74

Alpine radiokasetea salgai. 12 cdko kargadorea, 2 altaboz. 300 euro. is• 679 11 34 46 (Jose Luis)

• Kotxea salgai. Rover 216, GSI. Merkea. Te 635 72 30 26

• Citroen ZX Turbo Diesel salgai. SS-AW. 943 74 04 54

• 15.000m$^2$ko lur saila salgai, 15 urteko pinuekin. ts. 943 03 35 03

+ Ford Mondeo 1800 injeccion salgai. Egoera berezian. Tr 629 63 52 03

Wolkswagen Golf salgai. GT-TDI, 110 zaldi, SS-AZ. Egoera oso onean. cr 639 97 19 77

Citroen Xsara salgai. 1900 TD. SS-BF. Extra askorekin. 610 65 34 52 (Antonio)

Motorra salgai. Kawassaki GPX600. Egoera onean. 900 euro. tr 943 76 64 01/ 605 71 24 73

Opel Kadet 1.6 sv salgai. SS-AF-Merkea. 943 74 05 17/ 620 01 12 64

**ALEIERDI**
ERREKADISTA Tr 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK
• Paketeak • Gestoria
• Sobreak • Komertzioa

GESTIOAK
• Ogasuna • Trafikoa • Merkataritzako erregistroa
• Diputazioa • Merkataritzako - ganbera

oazte
informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean.*
*Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461*
*OHARRA*
*Ordutegi herria*
*Astelehena: 17:00-20:00*
*Asteartea-ostirala: 16:00-20:00*

# Agurrak



♦ Zorionak **Unai** txapeldun, hilaren 30ean 8 urte beteko dituzulako, amatxo eta aitatxoren partez.



♦ **Zorionak Leire** martxoaren 26an 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, politxa!



Zorionak **Oier,** gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



* Zorionak **Jon,** hilaren 30ean 4 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki Imanolen partez.



♦ Zorionak **Ainhoa Zapata,** hilaren 30ean 25 urte beteko dituzulako. Anaia Iker eta Iban, eta gurasoen partez.



►Zorionak nere **lehengusina** petardari. Familiakoen eta bereziki Martaren partez.



+ Zorionak **Iñaki Conde Artolain,** hilaren 27an 9 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Amaia, Imand eta Aitorren partez.



+ Zorionak **Julen Leori,** martxoaren 29an 5 urte beteko dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Loli,** apirilaren 1 ean urteak beteko dituzulako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Aneri** etxekoen partez, bereziki Iratiren partez.



♦ Zorionak **Igor** eta **Gorka,** hilaren 26an eta apirilaren 5ean, 2 eta 5 urte beteko dituzuelako. Familiakoen eta Esterren partez.



♦ Zorionak **Mikel** eta **Ainhoa,** guraso eta familiakoen partez.

## BEKAK

**Itzulpen-praktikoak**

Gipuzkoako Foru Aldundian itzulpen praktikak egiteko 2 bekaren deialdia. Itzulpengintza eta Interpretazioko Lizentziatura ikasketak izatea beharrezkoa da. Dirulaguntza 5.409 eurokoa da. Epea: maiatzak 30.

## JAHOUNALDIAK

**Boluntarioak**

A.T.E.A. gobernuz kanpoko animalista erakundeak boluntarioak behar ditu erakundearekin lan egiteko. Epea: ekainak 30.

## LEHIAKETAK

**Itzulpen lehiaketa**

Euskal Herriko Unibertsitateak Felix Ugarte XI. Itzulpen lehiaketa antolatu du. Jatorrizko testuaren kopia eta euskarazko itzulpena bidali behar dira. Saria: 1.400 euro. Epea: maiatzak 30.

**Maketa lehiaketa**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gaztemaniak 7. rnaketa lehiaketa antolatu du. Gutxienez 3 abestiz osatutako maketak, biniloak edo CDak bidali behar dira, taldearen historial, argazki, helbide eta harremanetarako datuekin. Epea: apirilak 30.

**Literatura**

**XXXIV.** "**Kutxa** Irun Hiria 2003" literatura sariak. Bi modalitate daude: poesia (euskara eta gaztelania) eta nobela (euskara eta gaztelania). Saria: poesia, 8.700 euro; nobela 12.800 euro. Epea: ekainak 14.

**Ipuin lehiaketa**

Emakumeen Kimetz Gizarte eta Kultura Elkarteak Kimetz ipuin-lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da. Euskaraz edo gazteleraz. 601,01 euroko bi sari izango dira, bata euskarazko lanentzat eta bestea gaztelaniazkoentzat. Epea: apirilak 15.

## LANA

**Ingurumen teknikaria**

Urola Kosta Mankomunitatean Ingurumen Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa. Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto edo titulu baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: apirilak 1.

**Udalekuak**

Foru Aldundiak, urtero bezala, 7-13 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat Udalekuak antolatu ditu. 1 zena ematea Gazte Informazio Gunean egin daiteke, apirilaren la baino lehen.

## 28 BARIXAKUA

19:00 **ALBERTO TORRESEN ESKULTURA ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Kultur Etxean
Apirilaren 13ra arte

22:15 **"ABIADURA HAUNDIKO URTE BATEN KRONIKA"**
Mikel Markez abeslariaren eta Pako Aristi idazlearen emanaldia
I. Bereziartua Musika Eskolako Auditorioan
Korrika Kulturala



## 29 ZAPATUA

16:30 **GIPUZKOAKO 34. HIRUTXIRLO BOLO TXAPELKETA**
San Pedro-Idotorbeko bolatokian

## 30 DOMEKIA

11:30 **ALTZOLATARREN DORRETXEA ELKARTE FILATELIKOAREN BATZAR OROKORRA**
Merkatu Plazako bigarren solairuan

## 1 MARTITZENA

18:30 **BILERA**
Gaia: "Nerabe garaiko arriskudun jarrerak"
Hizlaria: Hilario Garrudo, psikologoa
Ikastolako liburutegian
DBH 3-4 mailako gurasoentzat

## 3 EGUENA

18:30 **BILERA**
Gaia: "Gazteei erabakitzen utziko al diegu?"
Hizlaria: Hilario Garrudo, psikologoa
Ikastolako liburutegian
DBH 3-4 mailako gurasoentzat

19:30 **BILERA**
Gaia: Einbiou Abertzaleen Plataformaren bilera
Kultur Etxean

## 4 BARIXAKUA

12:00 **KORRIKA TXIKIA**
King-Kong-en hasi eta Plaza Handian bukatu

22:15 **ANTZERKIA**
"A cuestas con Murphy"
Taldea: Vaiven Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

## IKASTAROAK

**Heziketa afektibo-sexuala**

Lehen hiruhilabetean **D.B.H.** 4. mailakoek izan zuten bezala, bigarren hiruhilabete honetan **D.B.H.** 3.mailakoek eta Batxilergoko 1. mailakoek ere sexualitateari buruzko 8 orduko ikastaroa izango dute, Lahia sexologi taldeko kideak emanda. Ondoren maila hauetako gurasoek ikastaro bat izango dute, zalantzak, gaur egungo ikasleek sexualitatearekiko dituzten joerak eta kurtsoko balorazioa egingo dute. Bilera apirilaren 2an izango da, arratsaldeko 18:30etatik 20: 30etara, Ikastolako liburutegian.

**Kubako dantzak eta Sevillanak**

Haizea Emakume taldeak Kubako dantzak eta Sevillanen inguruko ikastaroa antolatu du. Apirilean hasiko dira klaseak eta ekainera bitartean luzatuko dira. Ostiraletan izango. dira klaseak 15:00etatik 16:30etara. Izena emateko Pitxintxu dendara joan.

## ZINE kluba




### "Ciudad de Dios"

**Zuzendaria: Fernando Meirelles.**
**Antzezleak: Alexandre Rodrigues, Leandro Firmino da Hora, Phelipe Haagensen.**
Ciudad de Dios Rio de Janeiroko (Brasil) favelarik arriskutsuenaren izena da. Bertan jaio eta hezitako mutil bat oso sentibera izaki, artearen bidez errealitatea beste ikuspuntu batetik ikus dezakeela konturatuko da, eta argazkilaritzan aurkituko du bere patu ilunari aurre egiteko modua. lzan ere, bien bitartean, bere lagunak inguruko droga trafikoaren jaun eta jabe izatera iritsiko dira.

## KIROLA

**Bolo Txapelketa San Pedron**

Gipuzkoako 34. Hirutxirlo Bolo Txapelketa Elgoibarren hasiko da zapatuan, martxoaren 29an, San Pedro-Idotorbeko bola tokian. Urtero bezala arratsaldeko 16:30ean hasiko da bolo saioa. Gipuzkoako 9 bolatoki ezberdinetan jokatuko dira txapelketak eta azkena, ekainaren 7an, Aiastiako bola tokian jokatuko da.

## KONTZERTUAK

**Mikel Markez eta Pako Aristi**

"Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, eta oraingoan Korrika Kulturalaren barruan, Mikel Markez abeslariaren eta Pako Aristi idazlearen saioa antolatu du Elgoibarko Udaleko Euskara batzordeak AEK euskaltegiarekin elkarlanean.

Saioaren izena "Abiadura Handiko Urte baten Kronika" izango da. Musika eta letrak batuz, hotsak eta hitzak hartuz, umorea, kritika, samurtasuna eta ironia nahastuz, herrialde askotan egiten den antzerki herrikoiaren generoa ekarriko dute Elgoibarrera. Saio hau gaur, martxoaren 28an, gaueko 22:15ean Inazio Bereziartua Musika Eskolako Auditorioan izango da, Sarrera doan izango da.

## IRTEERAK

**Mendi Irteerak Mendarotik**

In Leike Taldeak bi mendi irteera antolatu ditu datozen bi asteetarako. Igande honetan, martxoaren 30ean Leunganera (Dima) joango dira. Joan nahi duenak, 9:30ean du hitzordua Mendaroko estazioan. Bigarren irteera apirilaren 5ean, zapatuan, izango da. Ernio aldean trabesia egin ondoren sagardotegian izango da bazkaria. In Leikek antolatutako autobusa goizeko 8:30ean irtengo da estaziotik. Irteeraren prezioa 25 eurokoa da (20 euro ikasle eta langabetuentzat). Joan nahi duenak In Leikek Kutxan duen kontuan sartu beharko du dirua apirilaren 2a baino lehen. Informazio gehigarriren bat behar izanez gero, deitu telefono honetara: 690 396 756 (Alaitz).

## BATZARRAK

**Filatelia Elkartearen batzar orokorra**

Elgoibarko Altzolatarren Dorretxea Elkarte Filatelikoak urteko batzar orokorra ospatuko du domekan, martxoaren 30ean. Lehen deialdia 11:30etan izango da eta bigarrena 12:00etan Merkatu Plazako bigarren solairuan. Gai ordena honakoa izango da: Lehendakariaren agurra, aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, egoera ekonomikoaren errepasoa, jardueren memoria, zuzendaritza batzordearen erreleboa eta galdera eta iradokizunak. Bestalde, urteko kuota ordaintzeke edo zorrak dituzten bazkideek 11:00etatik aurrera zuzendu ahal izango dute euren egoera. Azkenik, batzar orokorraren amaieran materialea zozketatuko da agertzen diren bazkideen artean.

# PIPI zine

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"El jardin de la alegria"**

28, barixakua: 22:15

29, zapatua: 19:30-22:15

30, domekia: 19:30-22:15

31, astelehena: 22:15

**"Ciudad de Dios" (Z.K.)**

3, eguena: 22:15

**EIBAR**

**ga**

**"Hunted"**

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:30

30, domekia: 17:00-19:30-22:30

31, astelehena: 19:30-22:15

I, martitzena: 19:30-22:1

2, eguaztena: 19:30-22:1

"Un **hombre sin pasado**'

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:15

30, domekia: 17:00-19:30-22:15

31, astelehena: 19:30-22:15

1, martitzena: 19:30

2, eguaztena: 19:30

BARRENek ez du gena litezkeen ernanaklien a!riliketen er,m7H4imnik



## "El jardin de la alegria"

N

**Zuzendaria: Nigel Cole**

**Antzezleak: Brenda Blethyn, Craig Ferguson, Martin Clunes.**

Grace Trevethenen bizimodu lasai eta idilikoa hankaz gora jarri du bere senarraren ustekabeko heriotzak. Zor mordoa lagatzeaz gain, ezkutuko amorante bat zuela jakingo du Gracek eta bere etxe ederra galtzeko zorian izango da diru zorren ondorioz. Kinka larri honetatik ateratzeko lorazantzan dituen dohainetaz baliatzea erabakiko du, lorategian zituen orkideak marihuanagatik aldatuz.

# erretratu zaharra

2003-111-28



Aste honetako erretratu zaharra Manolo Unzillak laga digu. 1952ko apirilaren 20an aterata dago, Jaengo zezen plazan. Zezenketa bat antolatu zuten egun honetan, eta Manolo Unzilla bera ageri da zezena toreatzen. Manolo Jaen taldeko futbol jokalaria zen garai hartan. Egun honetan, 3-1 irabazi zioten Orensena taldeari, eta Espainiako Federazio Kopa Txapelketa irabazi zuten. Jaen taldeari omenaldia egin zioten egun honetan, eta Manolo Unzillak, futbolaria izan arren, torero itxura ere badaukala ikus dezakegu erretratuan. Argazkiaren izkinan zezenketari begira dagoena, Athletic taldeko Ortiz de Zarate jokalari ohia da, honek ere Jaen taldean jokatzen zuen orduan. Plaza jendez gainezka dago, eta sekulako giro ederra zegoela ikusten da.

*- Goian bego -*



JOSE ANTONIO
EGUIA GARDOKI

*2003ko martxoaren 14an hil zen 73 urte zituela.*

*Benetako euskaldun*
*jatorren kidea*
*beti erabili duzu*
*nekezko bidea*
*zuk ondo bete duzu*
*euskaldunen legea*

**EAKO ALDERDIKIDEAK**

# ESKAINTZA BEREZIA

- %100 latexko koltxoia
- 15 zm.-ko lodiera
- Funda aldagarria



| 90 zm. | 297 € (49.416 pzta.) | 135 zm. | 393 € (65.389 pzta.) |
|---|---|---|---|



- Egurrezko somierra
- Elektrikoa 5 posizio
- Tako baskulagarriak

+

- V0100 latexko koltxoia
- 15 zm.-ko lodiera
- Funda aldagarria

| 90 zm. | (125.122 pzta.) | 135 zm. | 909 € (151.244 pzta.) |
|---|---|---|---|

- Malgukizko koltxoia
- Pike oihala

+

- Gurpildun kanape iraulgarria
- Pike oihala



Burk la'' apal€1

| 90 zm. | (84.438 pzta.) | 135 zm. | 643,15 € (107.012 pzta.) |
|---|---|---|---|


**LAGUNAK**

San Roke kalea, 20
tel: 943 74 44 57
ELGOIBAR

ichfc'ffl

Gipuzkoako hiribidea, 12
tel: 943 17 02 08
ERMUA

# 4, OSTIRALA
# 22:15
## HERRIKO ANTZOKIAN

**Zerbait oker atera badaiteke, oker aterako da.**

9 pertsonaiak beren errealitatearen berri emango digute, eta honen bidez ulertarazi, Murphy, jatorri ezezaguneko zigorra, gure artean bizi dela.






*Fantasiaz eta samurtasunez betetako istorio liluragarria*

porpol
TEATRO ANTZERKI

# Leire
# hasiberria

## 6, kpandea
## 16',30
## Herriko Antzokian

KULTURA SAILA

FORU ALDUNDIA

SAREA